

## PLASTIFIKATZAILE SOLIDOEN ERAGINA PROTEINAN OINARRITURIKO FILMEETAN

Soia proteina oinarritzat hartuta, eta polietilenglikol solidoa eta glizerol plastifikatzaileen portzentaje ezberdinak erabiliz eginiko film-en propietate ezberdinen neurketa burutu da, ingurune basiko batean. Propietateak neurtzeko hainbat entsegu desberdin erabili dira, horien artean, hezetasuna, entsegu mekanikoak, infragorria, uretan inmertsioa eta biodegradazioa.

Entseilu hauekin lortu nahi dena, plastifikatzaile motaren eragina, plastifikatzailearen kantitatearen eragina, plastifikatzailearen pisu molekularren eragina eta zahartze efektua aztertzea da.

Proiektutik atera ditzakegun ondorioak hauek dira:

- Polietilenglikola bakarrik erabiltzen den kasuetan, filmak oso hauskorrak dira, glizerola ere badutenak aldiz erresistentzia handiagoa dute.
- Polietilenglikola eta glizerola duten filmetan oinarrituz, emaitza onenak, pisu molekular baxuagoak erabili direnean jaso dira. Geroz eta pisu molekular handiagoa izan, molekula handiagoa denez, zailagoa da proteinaren kateen artean sartzea.

Proiektu hau JENI GALDOS-ek egin zuen Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoan 2010. urtean.